

Arrantza eta itsasoa Euskal Herrian: antropologiko ikuspuntutik

Pagola, Manex; Rubio-Ardanaz, Juan Antonio

Euskal Herri ipar aldean lehen aldiz ospatu ziren 2000ko maiatzaren 11 eta 12an *Arrantza eta Itsasoa Euskal Herrian* izenburuarekin antolatu egunak. Eta zer arrakasta edo harrerarekin! Alabainan hitzaldi berezietarako deia ideki bezain laster, hogeit hamar partaidetzaz goiti atera ziren laster dela antropologia, etnologia, etnografia edo dela historia, ohidura, literatura edo berdin etnomuseologia ikuspegiak ekartzeko.

Eguraldia edo aroa hoberenatarik, Donibane Lohitzuneko *Erretegia*, portuari hurbil hurbila, toki ezinago egokian gertatu zitzaikun hor bertan bi metro-tan bezala baiginituen arrantzaleen itsas ontzi bereziak ur gainean dantzan. Itsas errealitate zabalaren gurpil edo mirail paregabeak!

Donibane Lohitzuneko udalak edo herriko etxeak ere Baionako Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak lantsuarekin denak errextuak ere zizkigun. Ahantzi gabe France-Pays Basque irratiko ipar Euskal Herriko adarrak itsasoaren egun hoiien bukaeran zuzenean antolatu ordu bat luzeko emankizun alai, nasai eta koloretsua, bertan parte hartzen zutela hizlari ospetsu, kondalari, abeslari eta abarrek... itsasoaren bizia nolazbait hurbildik gogoetarat ekarriz. Bertako prentsa idatziak ere ongi neurtua zuen zerbait berri eta sakonik antolatua zuela hor Eusko Ikaskuntzak, toki ona egin baitio honek ere horgo harat hunat guziari bai eta bereziki hizlari askori. Batzuek gisa bateko laguntza, bestek bestelakoa, hau ekarri diguten guzieri gure eskerrik bizienak!

Molde berdintsuan, nahiz iparraldeko lankideen kopuru ttipiagorekin, jada antolatu izan ziren aintzineko edo aurreko urtetan itsasgintzari buruzko beste egun batzu ere bai Donostian eta bai Bilbon. Donibane Lohitzunen ikusi da hain segur, jarraiean bezala, horien lorapenik.

Arrantza eta Itsasoa Euskal Herrian Donibane Lohitzuneko egunak zuzen zuzenean antropologia sozialaren ikuspegitik ereman nahi ziren, ezer ez dela

ahalaz bazter utzi itsasoaren eta horgo gaurko biziaren errealitateaz. Gehien bat agertu da, aldi bat gehiago, itsasoa bere alde guziekin zinez errealitate eremutsu eta bizi bizi bat dela, izan arrantza teknika, arrantzaleen biziaren alde ainitza, errealitate hortan giza biziaren beste sailetan nabari diren bizi neke bainan ere, zorionez, askotan itxaropentsua bezala.

Askotan azpimarratua izan den bezala, itsasoaren errealitateak asko digu erakusteko eta erakasteko euskal kulturaz ere bereziki, hau iraganean ideologia jakin batzuen harirat aski mugatua izan balinbada ere, adibidez, lurreko biziari, baserriari eta honen inguruari.

Alta, lurrekoan bezala dena aurki dezakegu itsasoko bizian ere. Eta ekonomia legeak berak edo beharrak ez dira hemen ere lurrekoak baino ttipiagok. Ekaien harrapatzea, hoi en banatzea, laneko eta orobat bizitzeko beste baldintzak eta abar...

Itsasoan ere badira ohidurak, orai ere askotan bizi direnak jendartean. Bai hemen ere aurkitzen dela beraz bizitzeko era berezirik, hemen ere adibidez sinbolika bat, koloreak, kultura nahasketak... Hor dira lekuko hanbat ikerketa dela ekonomiaren, hizkuntzaren, historiaren, bizi sozial aberats baten aldeak agertzen dizkigutenak edo folklore, literatura eta abar-en alde-tik itsas bizi mugikorraren berri ekartzen digutenak. Eta errealitate zabal horren artean kausitzen dira bereziki gizakiak, itsas gizon eta andre, hoi en haur eta familiak, geroari galdezka, iraganaz guti edo aski ikasiak halere, dela ipui zahar, kondaira, zahar hitz eta beste hanbat giza jakintza herritarreri lotuak.

Gauza jakina, antropologia sozialak gutartean sail asko ikergai hartzen ohi ditu geroz eta gehiago. Denetan ikusi nahiz nundik nola dabilen gizakia, oraikoa, bere ogibidez eta bere gaurko garaian hain berezia dena. Gizatiarren norabidea gogoan ikertzen dira era berrian baserria edo hiria adibidez. Zuzen da antropologia soziala itsasgintzaz ere ardura dadin hemen ere aurkitzen baita euskal kultura sakon eta bereziaren beste eremu ezinago aberats bat: hau ere beti bizi dena doika doika aldatuz balinbadoa ere garapenaren legez beste arloetan bezala.

Hau ez da iraganari begira eta begira egoitea, baizik begiak ongi gaurko errealitatean sartzea. Hor ere baita jende bat, gizaki bat bere baitako ordena guziarekin, nahiz hor ere noiz nola, berdin trakets askorekin biziko beste eremu askotan bezala.

Donibane Lohitzuneko Egun horietan lortu den ikerketa partaidetza ainitzak eta serioak geroan ere beste hainbeste egiteko itxaropena ematen digu antolakuntzan lehiatu garenori. Bide hortaz segur gara euskal kulturaren eza-gutzaren nolazpait osatzeari egin dugula denen laguntzari esker.